

Udalak ostegunean hasiko ditu Aizkolene kalea berrurbanizatzeko lanak, bertako irisgarritasuna hobetzeko

240.000 euro inguruko inbertsio duen jarduketa horri esker, zoladurak, asfaltatzea, saneamendua eta argiteria berritu ahal izango dira Aiete auzoko kale horretan.

Donostiako Udaleko Hiri Mantentze Zuzendaritzak Aiete auzoko Aizkolene kalea berrurbanizatzeko lanei ekingo die ostegun honetan. Jarduketa integral horri esker, bidearen egungo egoera nabarmen hobetu ahal izango da, espazioa antolatu ahal izango da eta oro har, oinezkoentzako kale irisgarriago bihurtuko da.

Aurreikusitako jarduketan artean daude, besteak beste, espaloiak zolatzea, kalea asfaltatzea eta saneamendu-sareak berritzea; lan horiek egiteko guztizko inbertsioa 240.000 euro ingurukoa izango da.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak azpimarratu duenez, "esku-hartze garrantzitsua da Aizkolene kalearentzat, ez baikara zoladura berritzeaz edo kale bat asfaltatzeaz soilik ari; aitzitik, espazioa erabat berrantolatzeaz eta gaur egun narriadura handia duten azpiegiturak hobetzeaz ari gara". Garcíak adierazi duenez, helburua da "kale erosoagoa, irisgarriagoa eta antolatuagoa lortzea, oinezkoek garrantzia handiagoa izan dezaten, baina, aldi berean, etxebizitzetarako sarbidea bermatuz eta aparkalekuak mantenduz".

Oinezkoentzako kale bat

Jarduketak sestra igotzea aurreikusten du, hain zuzen ere Errondo Gaina kalearen ondoan dagoen lehen oinezkoen pasabidetik Aizkoleneko 2. zenbakiraino, gutxi gorabehera. Horrela, espaloiak, bideak eta aparkalekuak ia maila berean geratuko dira; horrek, espazio jarraituagoa sortzeaz gain, oinezkoen joan-etorriak erraztuko ditu.

Zenbaki bikoitien aldean espaloi jarraitu bat eraikiko da, bi metroko zabalerakoa eta 250 metro inguruko luzerakoa, eta baldosa hexagonaleko akabera izango du. Zirkulazio-bideak hiru metroko zabalerakoa izango du, eta maila berean kokatutako hormigoizko zintarri aurrefabrikatu baten bidez bereiziko dira espaloia eta zirkulazio bide hori. Era berean, euri-urak biltzeko sistema berri bat egingo da, 30 zentimetroko zabalerako ubideen bidez.

Zenbaki bakoitien aldean, 27 eta 19 zenbakien artean, hainbat espaloi-zabalpen egingo dira etxebizitzetarako sarbideen parean, eta horiek ere

Prentsa oharra

Nota de prensa



baldosa hexagonalez zolatuta egongo dira. Espaloi-zabalpen horien artean ilara-aparkalekuak egongo dira. Halaber, aparkalekuak jarriko dira 4. eta 6. zenbakien aurrean eta San Juan de Dios ospitalearen hormaren ondoan.

Guztira, ilara-aparkalekuetarako aurreikusitako azalera 230 metro koadro ingurukoa izango da, hau da, 125 metro lineal inguru. Gainera, kalearen hasieran dauden zeharkako aparkalekuen zorua erabat berrituko da.

Saneamendua erabat berrituko da

Jarduketa nagusietako bat egungo saneamendu-sarea berritzea izango da, egoera txarrean baitago eta sistema unitario baten bidez funtzionatzen baitu. Esku-hartzeak sare bereizle bat ezartzea ahalbidetuko du, ur beltzen eta euri-uren bilketa bereizteko. Horretarako, 180 metro inguru kanalizazio berri instalatuko dira ur beltzetarako, eta beste 190 metro euri-urak biltzeko.

Argiteria berria ezarriko da eta zoladurak berrituko dira

Jarduketak argiteria publikoaren sarea berritzeko aukera ere emango du. Horretarako, gutxi gorabehera 610 metroko kanalizazioak ezarriko dira zenbaki bikoitien aldean egongo den espaloi nagusiaren azpian. Gaur egun kontrako aldean dauden kale-argiak espaloi berri horretara lekualdatuko dira.

Obra horien bidez, halaber, 370 metro inguru zintarri eta 260 metro inguru sakangune jarriko dira; era berean, hormigoi armatuzko oinarri eta lauza berriak ezarriko dira eta 580 metro koadro inguruko baldosazko zoladura berria ezarriko da.

Galtzadari dagokionez, 250 metro inguruko luzera duen zati batean jardungo da, guztira 830 metro koadroko azaleran. Beharrezkoa den lekuetan, lehendik dagoen zorua fresatuko da, eta nahasketa bituminoso berri bat zabalduko da, bai aparkalekuetan, bai bidean. Jarduketa osatzeko, kutxatilak berdinduko dira eta seinale horizontal guztiak berrituko dira.

Obrak zatika egingo dira, sarbideak mantentzeko

Lanak faseka eta zatika antolatuko dira, Aizkolene osoari aldi berean ez eragiteko. Obrak egiten diren bitartean, etxebizitzetarako sarbidea bermatuko da une oro.

Iñigo Garcíaren ustez, jarduketa horrek Hiri Mantentze Zuzendaritzaren lehenasunetako bati ere erantzuten dio: "Hainbat auzotan jarduten ari gara, berritzea behar duten kale eta espazioak hobetzeko. Esku-hartze horiek oso zuzeneko eragina dute bizilagunen eguneroko bizitzan".